

306/2018 Ebazpena, 2018ko apirilaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko agintzen da aldi baterako kontrataziorako 2008ko indarreko zerrenda eguneratuak, bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

Erabaki horren 18. atalean ezarritakoaren arabera, azken EPEan deitu ez ziren kategoria/lanpostu funtzionalei dagozkien zerrendak aldatu egin daitezke, hizkuntza-eskakizunak eguneratzearen ondorioz. Hori dela-eta,

EBATZI DUT:

Lehena.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratzeko agintzea aldi baterako kontrataziorako eguneratutako 2008ko zerrendak, bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan, indarrean dauden kategoriei dagokionez.

2018ko apirilaren 12an indarrean sartuko dira zerrenda eguneratuak.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko apirilaren 11n.



Osakidetza
Juan Carlos Soto Pérez
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA